
SATIRO
Xanti
Agirrezabala

XXXVII. AZPEITIKO EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

IKUSLEGOAREN SARI BEREZIA

SINOPSIA

Satiroa: Sexu-instintu gordinenak irudikatzen dituen izakia. Gizonezko lizun, likits, zantar eta haragikoia. Basoetako jeinua, erdi gizona erdi animalia, giza enborra eta aurpegia, aker-zangoak, adarrak eta isatsa zituena. Ardoa edaten, jostatzen eta dantzan ibiltzen zena.

Nik ditut zure desirak, zure nahiak, zure fantasiak, zure erotika. Ni, zu naiz. Dena da haragia, gorputza. Gorputzaren bila zabiltza etengabean. Gorputza baduzu, baina ahaztu egiten duzu, larrosaren usainak larrosa ahazten duen bezala, aurkitu nahian dabilen gorputz batek gorputza aurkitzen duen arte.

Elizak dio gorputza erruduna da
Zientziak dio gorputza makina bat da
Iragarkiak dio gorputza negozioa da
Gorputzak dio: ni FESTA bat naiz.
(Eduardo Galeano)

AURKEZPENA

Satiroa Antzinako Greziako mitologian plazerraren irudikapena zen, sexu gose ase ezina zuen pertsonaia, instintiboa, basatia. Gure gorputzetan daramagun zerbait al da sexualitatea? Gure instintuari jarraitzen diona? Edo gehiago da gauza mental eta moral batek gidatutakoa? Gizaki garen neurrian, guk ere badugu plazerrerako beharra, gosea, baina benetan jarraitzen ditugu gure nahiak? Zein dira gure fantasiak, desirak? Eta zein gure praktikak? Askatasunez bizi da barruan dugun Satiroa?

Formatu ertaineko lan honetan, mitologiako pertsonaia klasiko baten bidez eta Balleteko puntak erabiliz, maskulinitatearen eta plazerraren inguruko hausnarketa bat burutzea da helburua. Lana modu oso gordin eta zuzen batean burutuko da, desira eta fantasia sexualak abiapuntutzat hartuta.

Gorputzak dio ni festa bat naiz.

eta zu?

FITXA ARTISTIKOA

Sortzailea eta interpretea
Xanti Agirrezabala

Elkarlan artistikoa eta kanpo begirada
Matxalen de Pedro

Edukiaren garapena
Ione de la Cruz
Ane Arenas

Eszenografia
Ekain Arrizabalaga

Jantziteria
Lierni Esnaola

Bidelagunak:
Jon Ander Urresti
Maite Aizpurua
Erika Olaizola
Carmen Olano

XANTIRO



Txikitatik formatu izan da euskal dantza, musika eta arte plastikoetan. Nerabezaroan arte eszenikoetan barneratzen da Alaitz Olaizolare-kin eta Zestoako interpretazio eskolan.

DANTZERTI Euskadiko Arte Dramatikoko Goi Mailako eskolan burutzen ditu ikasketak, interpretazioa espezialitatean. Bere formakuntza osatzen doa irakasle ezberdinekin, hala nola: Andres Corchero, Urs Strauffer, Fabio Mangolini, Javier Hernandez Simon, Carles Castillo, Pablo Ibarluzea, Laura Corcuera...

Antzerkiko lehen hastapenak egiten ditu Eromen Produkzioaken "Sweeney" eta ATEA Teatroaren "Jendartean Bidaide" lanetan. Geroztik proiektu ezberdinetan parte hartu izan du, adibidez EZTENA jaialdirako Espe Lopezekin sortutako "La Mirada – Begirada" sormen prozesuan. XXXVII. Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan aurkezten du "Satiro", bere lehen bakarkako somen lana, ikuslegoaren sari berezia irabazten duelarik. Gaur egun 2020an taularatuko den "Antigone" lanaren sormen prozesuan murgilduta dabil Horman Poster kolektiboarekin.

Ikus entzunezkoetan "Goenkale" eta "Ihesaldia" telesailetan aritu izan da, baita "Korosagasti" luzemetrai eta "Los honores" laburmetraian ere.

Gaur egun antzerkiko irakaslea da Azpeitiko Dinamoa sormen gunean.

MATXALEN DE PEDRO

Interpretazio gestualean titulatua da Institut de Teatren eta EHU/UPVko Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa masterduna. Dantza garaikide formakuntza jasotzen du nazioarteko hainbat irakaslerekin.

Catalunya nahiz Euskal Herriko antzerki, telebista eta zinema ekoizpenetan interprete gisa lan egin ondoren, 2010ean, Igor de Quadrarekin batera HORMAN POSTER kolektiboa sortu zuen. Bertatik, proiektu eszeniko esperimentalak garatuko ditu, bai ohikoak diren erakusketa espazioetarako eta baita site-specific-ak ere.

Zenbait mediazio proiektu jarri ditu martxan bai HORMAN POSTER kolektibotik eta bai muelle3-tik ere. 2010-2015 artean Bilboko muelle3 Dantza eta Sormen Lantegia kudeatzen du Olatz de Andrés eta Igor de Quadrarekin batera. Egun, Dantzertiko Arte Dramatiko ikasketetan interpretazioa, sormena eta esperimentazioarekin lotutako ikasgaiak irakasten ditu.

KONTAKTUA

Xanti Agirrezabala Zeberio
+34 697 299 169
xantiagirrezabala@gmail.com

Babesleak:

azpeitikoudala denon artean

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Mahaiaren Kooperatiba